



Andoaingo Udala

Alkatetzaren ebazpena

Ikusirik, 2/2016 LEGEAn, apirilaren 7koan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez, 7.2. artikuluan zehazten dela: *“Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz”*.

Ikusirik, 19/2024 DEKRETUAN, otsailaren 22koan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoan, 14.1 artikuluan zehazten dela: *“Euskal sektore publikoko entitateek, beren eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte beste entitate publiko edo pribatu batzuekin, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.”*

Ikusirik, Andoaingo Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014ko martxoaren 27an onartutako eta GAO 2014ko maiatzaren 27an argitaratutako dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantzaren 11.1.c) artikuluan jasotzen dela emakidak zuzenean egin ahal izango direla *“Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arazoak egiaztatzen dituzten beste diru-laguntzak, edo bere deialdi publikoa eragozten duten behar bezala justifikatutako beste batzuk”*

Ikusirik, Andoaingo Udaleko Udalbatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzarraldian, aho batez, onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) dokumentuan, Helduen euskalduntze-alfabetatzea esparruan, elebarraren zakua gero eta txikiagoa izateko bidean, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko planteatzen diren ekintzen artean, honakoak azaltzen direla:

3.1.2. *“Herriko euskaltegiaren jarduna errotik berrindartzea herriko helduen euskalduntze premietara egokituz, eta egokitze horretan kolaboratzea”*

3.1.3. *“Herriko euskaltegiko ikaskuntzako eskaintza integrala bermatzeko laguntzak ematea (autoikaskuntza...)”*

3.1.6. *“Euskara ikasteko eta euskara gaitasuna sendotzeko premia eta sentiberatasuna zabaltzen jarraitzea”*

Ikusirik, AEK euskaltegiaren autoikaskuntzarako ikasgelaren funtzionamendua finantzatzeko ekarpenak egiteari ekin ziola Andoaingo Udalak 2002tik, urte hartatik aurrera HABEren finantzaketa ikasleen asistentziaren araberakoa ezarri baitzen, hau da, %100eko asistentziatik beherakoentzako dirusarreraren murriztea ekarri zuena.

Ikusirik, helburu honetarako, Andoaingo Udaleko 2026rako aurrekontuan 0600.481.335.00.03 (569) zenbakiko partida izendun bat aurreikusi dela EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEAren alde (Andoaingo AEK euskaltegia).

Ikusirik Andoaingo AEK euskaltegiak 2025eko azaroaren 28an, 2025-10774 eta 2025eko abenduaren 2ko, 2025-10973 erregistro zenbakiko dokumentuen bidez eskatu zuela, guztira, 6.500 euroko dirulaguntza 2025-2026 ikasturtean autoikaskuntza gelaren jardueran laguntzeko eta 2026ko Korrikaren inguruan Andoainan antolatzen ziren ekintzetarako.

Ikusirik euskara teknikariak 2026ko martxoaren 30ean egindako aldeko txostena.



Andoaingo Udala

Ikusirik udal Kontuhartzaileak dirulaguntza emateko 2026ko uztailaren 11n egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bidez, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Onartzea, Andoaingo Udala eta Euskaraz Kooperatiba Elkartearekin (Andoaingo AEK euskaltegia) erakundearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Andoaingo AEK euskaltegiari laguntzea autoikaskuntza gelaren finantziazioan 2025-2026 ikasturtean eta 2026ko Korrikaren inguruan Andoainen antolatzen dituen ekimenetan.

Dirulaguntza: 5.153 €.

Partida: 1.0600.481.335.00.03 (569). RCT 201/2026

Indarraldia: 2026

Bigarrena: Euskara Zerbitzua lansaileko zinegotzi ahalduari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena: Ordainketak egingo dira bi epetan: bata behin 2026ko Korrika ospatzeko Andoaingo AEK euskaltegiak antolatutako ekintzen memoria eta gastuen egiaztagirak aurkeztu ondoren; bigarren ordainketa egingo da Andoaingo AEK euskaltegiak 2025-26 ikasturtean bere autoikaskuntza gelak sorturiko sarrera eta gastuen likidazioa aurkeztutakoan.

Laugarrena: Akordio honen berri ematea Kontuhartzailetza udal lantsailari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea

